

H ERNANI



Joxe Mari Arrieta

1 Hernani maite zuri begira bustitzen zaizkit begiak nai luken arren irriparrikan ez du nere aurpegiak itz goibelekin itzegiten dit biotzaren iztegiak ez dira kontu gozoak baño ez ote dira egiak.

2 Polita omen ziñan antziñan gorputzez eta aurpegiz zer esan zure zain garbietaz ta zer esan zure mendiz edertasuna industriari eskeñi zenion egiz orain azalak zimurtu eta tristetua zaude begiz.

3 Ardi ugari inguratu zan larre berritik jatera orain ustutzen asia zaigu len gañezka zan platera burnia oso auldu zitzaigun zer esan berriz papera krisi ekaitzak or darabilki batera eta bestera.

4 Ez gendun ezer errespetatu boteaz langa ta esi aurrerapena eta itxura ez genituen berezi orain larreak moztutakoan ardiak berriz igesi kuxidade au egiterikan inork ez luke merezi.

5 Garai bateko zenbait erreka biurtu dira arraska len lorategi ziran mendiak lillura ez baña nazka edo tristura ematen dute mindu da begien bazka senda eziña da aurpegian egin zaion arramazka.

6 Asko gabilta gure errian sarri ikusten dedanez narraskeriak azpindutako trago mikatzak edanez. Ama bat beti maitzatzen data gure erri ama danez semeongatik zatartu dana nola ez artu laztanez.

7 Zugaitz landare ederra gendun erri ontako izkuntza ta orain berriz ikusten dana estaltzen dun erdal untza oartzerako igo zitzaion adarretatik goruntza ito ta gero berandutxo da orain bear du laguntza.

8 Garai batean euskaldun ziñan euskaldun ziran auzoak ez dira beti zuzenak izan mintzaeraren pausoak ikuspegia estaltzen badu begietako lausoak arranoaren atzaparretan erortzen dira usoak.